



NOLA EGIN AURRE ZAINTZEN ARI NAIZEN PERTSONAREN **OROIMEN- NAHASMENDUEI**

1. Galderak errepikatzea

Jokabide honen oinarrian eritasunak sortutako oroimen gabezia dago, kezkek, antsietateak eta segurtasun ezak areagotua. Ez da jabetzen galdera behin eta berriz egin duela eta ezta oroitzen zer erantzun hartu duen.

Gomendatutako estrategiak

- ▶ Pertsona eria lasaitu behar da edo galdera berari zenbait aldiz erantzun behar zaio; ahalegindu ez-entzunarena ez egiten edo saiatu harekin ez arrazoitzen.
- ▶ Saiatu ahots lasaiarekin hitz egiten eta esaldi laburrak erabiltzen.
- ▶ Saiatu haren arreta galarazten, solasaldiz aldatuz edo beste toki batera eramanez, atsegin duen musika jariz, etab.
- ▶ Ez gogoratu denbora askorekin mediku-hitzorduak, urtebetetzeak edo bestelako gertakizunak.
- ▶ Erantzun jardun baten gainean edo hark ongi ezagututako gertakarien gainean. Esaterako, “Zer ordu da? Bazkaltzeko ordua”.
- ▶ Saiatu erantzuna aurki dezaten laguntzen. Esaterako, “Zer ordu da? Erlojua begiratu behar dugu”.
- ▶ Erraztu orientazioa egutegien, erlojuen, kartelen... bidez, galdera asko lotuta baitaude denboran eta espazioan duten orientazio ezarekin.


2. Objektuak galtzea eta ezkutatzea

Oroimena galtzeak berarekin dakar pertsona eriak maiz gauzak oroitzen ez dituen lekuan uztea. Berdin gertatzen da gorde edo ezkutatzen dituen baliozko gauzekin ere.

Horri guztiari gehitu behar zaio dementzia duten pertsona batzuk mesfidati bilakatzen direla eta, ondorioz, gatazkak izan ohi direla objektuak agertzen ez direnean, uste izaten baitute norbaitek ebatsi dizkiela. Errua, eskuarki, familiako baten bati edo zaintzaileari egozten diote.

Gomendatutako estrategiak

- ▶ Izan etxea ordenatua. Hala eginez gero, errazagoa izanen da gauza bakoitza toki zehatz batekin lotzea. Toki bat gauza bakoitzerako eta gauza bakoitza bere tokian.
- ▶ Utzi beti toki berean giltzak, betaurrekoak, diru-zorroa, etab.



- ▶ Eskura izan giltzen segurtasun-kopiak eta gal daitezkeen gauza garrantzitsuen ordezkioak.
- ▶ Itxi giltzarekin zenbait armairu edo gela, pertsona eria-aren ibilera eta jarduna murrizteko.
- ▶ Ez utzi diru asko etxean.
- ▶ Utzi ikusteko moduan gal daitezkeen objektu txikiak. Esaterako, jarri ongi ikusteko moduko giltzatak handi eta ikusgarriak.
- ▶ Saiatu jakiten pazienteak ba ote duen gauzak ezkutatzeko gustuko tokiren bat.
- ▶ Ahalegindu ez ditzan erraz eskuratu bitxiak, dokumentuak eta baliozko objektuak, ez ditzan galdu, ezkutatu edo hautsi.
- ▶ Saiatu soinean eraman ez ditzan baliozko objektuak edo diru asko (bitxien ordezkioak eraman ditzake, galdu baino lehenago).
- ▶ Paperontzia hustu aurretik, begiratu zer dagoen barnean.
- ▶ Hobe da zerbait galdu dela onartu eta pazientearekin batera bilatzea, ezen ez harekin eztabaidan hastea.
- ▶ Norbaitek ebatsi duela badio, egiaztatu susmo hori funtsatua den.

3. Gehiegizko gastuak

Gehiegizko gastuak gerta daitezke. Esaterako, beharrik gabeko erosketak edo behin eta berriz egindakoak, bankutik dirua ateratzea jadanik atera dela edo non gorde den ez gogoratzeagatik, dirua etxean edo kalean galtzea, kalkuluak egiteko zailtasunak...

Gomendatutako estrategiak

- ▶ Saiatu demenzia duen pertsona haur bezala ez hartzen. Utzi gai ekonomikoetako batzuk bere eskutan, arriskurik ez dagoen heinean.
- ▶ Egin akordioak eritasunaren hasierako faseetan, zaindutako eria oraindik ulertzeko gai denean, bestelako lege-babesak (desgaikuntza) hartu aurretik. Txartelean egunean gehienez zenbat atera daitezkeen mugatu edo kontuetan begirale moduan egon daiteke; halaxe jakinen dugu dirua nondik nora mugitu den.
- ▶ Utzi poltsikoan diru zerbait eramaten.
- ▶ Saiatu erosketak norbaitek lagunduta egin ditzan eta ez eman aukerarik Interneten eros dezan.
- ▶ Azaldu inguruko merkatariei edo bankuko langileei eria-aren egoera zein den, haiek ere kontrolean murgil daitezzen.
- ▶ Pertsona eria-aren babes ekonomikoaren gaineko argibiderik behar baduzu, egin kontsulta osasun arloko erreferentziako langileei.